

Gure enpresa ezaguna izatea oso garrantzitsua da, horretarako, propaganda egiten dugu hainbat metodoen bidez. Hasteko, guk grabatutako iragarki bat dugu, motza eta deigarria dena, eta honetan guri buruzko informazioa ematen da. Gaur egun gehien erabiltzen dena sare sozialak dira, eta bertatik aurkezten dugu gure lan desberdinen aurrerapenak, esate baterako, ezkontza batean erabiliko den soinekoaren argazki bat, eta gure iragarkia bertan aurkezten dugu ere, hainbat sare desberdinetan erakuzteko ordaintzen dugulako. Hori gutxi balitz, kartelak ere jartzen ditugu interesa izan ahal duten pertsonak dauden lekuetan, adibidez, autobus geltokietan.

Propaganda guzti hori bezeroak erakartzeko ere balio du, baita esperientzia ona izan duten bezeroek egin ahal diguten enpresaren zabalkuntza ere jende berriarengana ailegatzeko balio digu.

Jendea gure iragarkia ikusten duenean, bertan ere ikusiko du gure telefonoa, gure web horrialdea, eta gure sare sozialen izenak ere. Horrela, interesatuta dauden pertsonak bakarrik bilatu behar gaituzte interneten, iragarkian agertuko den linkera eman, hala telefonora deitu ahal gaituzte ere. Behin gurekin kontaktuan jarri direnean, bai dehi baten bitartez edo bai mezu baten bitartez, haiekin hitz egin behar dena hitz egiten dugu, eta guri buruzko dituzten galdera guztiak erantzuten dizkiegu, adibidez, prezioak, helburuak... Haiek bilatzen dutena bagara, bakarrik interneten bidez formulario bat bete behar dute haien informazio pertsonalarekin, eta guk kontaktuan jarriko gara haiekin geratzeko hainbat gauza eztabaidatzeko, esate baterako, datak, zer janari nahiago duten, zer soineko erabiliko den, non egin nahi duten... Geratzen garenean guk haien etxera joango ginateke behar dugun materialarekin, horrela, haientzat errazagoa izango da, eta leku ezagun batean egongo direnez, estresatzea zailagoa izango da.

